

**•Cynllunio yng Nghymru a'r
Gymraeg : methiant mwyaf
y mudiad iaith?**

**•Plangintza Galesen eta
galesan: hizkuntzaren
aldeko mugimenduaren
porrota?**



Menter
Iaith
Conwy



Non dago Gales ?



Cymraeg

PROBABLY THE OLDEST LIVING LANGUAGE IN EUROPE



Gales	<i>Euskal Herria</i>
Hedadura 20,799km ²	20,947km ²
Hiztunak 560,000	665,800
3,063,456	2,589,600
% 19	% 25.7



- **Testuinguru historikoa**

- Seigarren mendean galesa Britania ia osoan hitz egiten zen, Eskoziako Strathclyde barne (izena galesatik dator). Cumbriako zenbait artzain ardiak galesez zenbatzen zituzten hogeigarren mendean.
- Galesa da idazten hasi zen Europako lehen hizkuntzetako bat.
- 1282an Galesek independentzia galdu zuen konkista militarren ondorioz.

- 1536an Henry VIII.aren “Batasunaren Ituna” delakoak galesaren erabilera debekatu zuen administrazio publikoan eta justizian.

"Henceforth no Person or Persons that use the Welsh Speech or Language shall have or enjoy any manner Office or Fees within this Realm of England, Wales, or other the King's Dominion, upon Pain of forfeiting the same Offices or Fees, unless he or they use and exercise the English Speech or Language".

1847ko Errege Batzordea

Brad y Llyfrau Gleision a'r Gymraeg

“The Welsh language is a vast drawback to Wales and a manifold barrier to the moral progress and commercial prosperity of the people. It is not easy to over-estimate its evil effects.”



- Industria-iraultzaren lehen olatua Galeseko landa-eremuetatik berriki industrializatutako eremuetarako mugimendua izan zen. Industria-iraultzaren hasierako urteetan industria-eremuetako hizkuntza galesa izan zen. Halere, hemeretzigarren mendearen amaieran, mugaz bestaldeko migrazio handiak eremu horietako hizkuntza-ohiturak aldatu zituen.
- **1911ko** erroldak jaso zuen galesaren hiztun-kopururik handiena: 977.366. Halere, bertan ere jaso zen galesa, lehen aldiz, gutxiengoaren hizkuntza bihurtu zela, populazioaren %43,5ek hitz egiten zuelako.
- Galesaren gainbeherak bere horretan jarraitu zuen 1991ko erroldara bitartean. 2001eko erroldak galesera ezagutzen eta erabiltzen dutenen kopuruak zertxobait gora egin zuela jaso zuen.

- **Hizkuntza berreskuratzeko borroka**
- **1922** - Urdd Gobaith Cymru, European dagoen umeen eta gazteen mugimendu handienetako sortu zen.
- **1939** - Galesaren lehen eskola pribatua sortu zen (Aberystwyth).
- **1942** - Welsh Courts Act/Galeseko Auzitegu Legeak eskubide mugatu batzuk aitortu zituen galesa epaitegiaren aurrean erabili ahal izateko, lehen aldiz 1536 urtetik.
- **1947** -Ysgol Gymraeg Llanelli galesaren bidezko murgiltze bidezko eskola zabaldu zuten. Hauxe izan zen osoki Hezkuntza Agintaritzaren mende zegoen galesaren murgiltze bidezko lehen eskola.
- **1956** - Ysgol Glan Clwyd zabaldu zuten Rhyl herrian -bigarren hezkuntzako murgiltze-bidezko lehen eskola.
- **1962**- Saunder Lewis idazleak bideratzen zuen 'Tynged yr Iaith' (hizkuntzaren patua) izeneko irрати-programan galesa desagertuko zela aurreikusi zuen eta entzuleak eguneroko bizitzan eta modu ofizialean erabiltzera bultzatu zituen. Horren ondorioz, Cymdeithas yr Iaith Gymraeg (Galesaren Gizarte Mugimendua) eratu zen.

- **Welsh Language Act/Galesaren Legeak (1967)**
epaitegien aurrean testigantza galesez emateko eskubidea bermatu zuen, bai eta dokumentu ofizialak hizkuntza horretan jasotzeko ere.
- **1977**an Radio Cymru sortu zen.
- 70. hamarkadan eta 80.aren hasieran **galesezko telebista-katea**, S4C, jartzeko kanpainari ekin zitzaion. Amaieran, Gwynfor Evans-ek gose-grebari ekin zion eta Gobernuak hitza bete egin behar izan zuen. S4C katearen lehen emisioa 1982ko azaroaren 1ean izan zen.
- 1993ko **Galesaren Legea** beste aurrerapausu bat izan zen, Galesaren Batzorde Ofiziala sortu eta ingelesak zein galesak baldintza berdinak zituztela berretsi zuen.
- **2003**an, **Iaith Pawb**, Galesko Asanbladaren Gales Elebidunerako Plan Nazionala argitaratu zen, eta Asanblada Nazionalaren zeharkako onespena izan zuen.

- 2011 Hizkuntza Legea - Hizkuntzarako Komisariotza ezarri.
- 2011 Hizkuntzaren Estrategia Berria.
- 2011 Erroldaren emaitza etsigarriak.

Plangintza desegokia

1893 -1904 - 1893-1904 Ingalaterrako Gobernuak Galeseko hegoaldean kokatuta dagoen Elango harana itotzea erabaki zuen Birmingham uraz hornitu ahal izateko.

1939 - 1940 - Ingalaterrako Gobernuak Mynydd Epynten tiro-eremua eraikitzea erabaki zuen, eta 54 familiak etxebizitzak utzi behar izan zituzten. Ereiteko 40000 akre lur kendu zieten eta Powys hegoaldean bizi zen azken gales-komunitatea suntsitu zuten.

1959 - Ingalaterrako Gobernuak gales hiztuna zen beste haran bat itotzea erabaki zuen. Tryweryn harana ito zuten Liverpool uraz hornitzeko.



1960tik aurrera oporretarako etxeak eremu gales hiztunetan arazo bihurtzen hasi ziren. 1980-1993 bitartean Meibion Glyndwr's kanpainaren bidez 300 opor-etxe baino gehiago erre zituzten.



- Ondorengo etxebizitzaren gorakadak eta Ingalaterratik zetorren immigrazioak ondorio izugarriak izan zituzten galesaren hiztun-komunitateetan.



Beth yw coloneiddio? Ateb: proses sy'n dinistrio iaith, diwylliant a chymunedau brodorol. Yng Nghymru, mae coloneiddwyr yn gwrthod dysgu'r iaith frodorol (Cymraeg) gan orfodi eu hiaith (Saesneg) a'u diwylliant hwy ar gymunedau brodorol.

Cantyniad coloneiddio? Ateb: mae'r Cyfrifiad yn dangos bod y broses yn dinistrio cymunedau Cymraeg. Heb gymunedau Cymraeg, bydd yr iaith Gymraeg yn marw.

Yr Ateb Gwnewch popeth yn Gymraeg a helpwch y rhai sydd yn dysgu!

What is colonization? Answer: a process which destroys native languages, cultures and communities. In Wales, colonists refuse to learn the native language (Welsh) and force their language (English) and culture on indigenous communities.

The result of colonization? Answer: the Census shows that this process is destroying Welsh-speaking communities. Without such communities, the Welsh language will die.

The Answer This is not England, don't Colonise: Please Respect and Learn Welsh!


www.cymuned.org



Dim Coloneiddio

Canran yn gallu siarad Cymraeg • Percentage of Welsh speakers


■ 80% + ■ 50% - 80% ■ 25% - 50% □ 0% - 20%



What does the United Nations Say? Article 27 of The International Covenant on Civil and Political Rights states that 'minorities [...] shall not be denied the right, in community with the other members of their group, to enjoy their own culture [...] or to use their own language.'

No Colonisation

Cyfran y bobl (3 oed a throsodd) sy'n gallu siarad Cymraeg, fesul Adran Etholiadol, 2011



Ffynhonnell: Cyfrifiad 2011

193.12-13


Technoleg a Dearyddiaeth

© Hawlfraint a hawliau cronfa ddata'r Goron 2013.

Rhif Trywydded yr Arolwg Ordans 100021874.

2011 Census: results and changes since 2001

Number and percentage of the population (age 3 and over) able to speak Welsh 1901 - 2011



Change in the % able to speak Welsh, 2001 - 2011 (percentage points)

- “Hizkuntza-nazionalistek” Etxebizitza Elkarteak sortu zituzten. Halere, hizkuntza ezin izan zuten ezarri puntuazio-irizpide gisa. Askotan Ingalaterratik arazo sozialekin zetozen maizterrak ziren.
- Cymdeithas yr iaith erakundeak “jabetza-lege” baten aldeko kanpaina egin zuen, arazoari garrantzia emateko eta Galeseko herritarrei etxebizitza-merkatuan aukera bat emateko.

Jabetza Legearen Oinarrizko irizpideak

1. Tokiko beharren azterketa.
2. Etxebizitzak eta jabegoak errentan.
3. Laguntzak lehen aldiz erosiko dutenentzat.
4. Lehentasuna bertoko jendeari.
5. Komunitatearentzako plangintza. Plangintza-sistema horrek tokiko komunitatearen beharren arabera beharko luke izan - gizartean, ingurumenean eta hizkuntzan-.
6. Plangintza baimenak berraztertu.

1988an presio politikoaren ondorioz,
53/88 Zirkularra onartu eta
plangintza berbideratu zen.
Lurraren erabilerarako politiketan
eta planifikazioaren aplikazioak
zehaztean kontuan hartu beharreko
elementuen barruan galesa ere
irizpide bihurtu zen.
Galesaren Bulegoa izeneko
erakundearen bidez egin zen.

1997: Erreferendumaren ondorioz Galesek autonomia gehiago irabazi zuen. Plangintzen eremua izan zen deszentralizatutako alor politikoetako bat.

2004an egindako azterketa baten arabera ondorioztatu zen azken 18 urteetan apelazio-erabakietatik 27tan besterik ez zela kontuan hartu hizkuntza galesa.

Gertaera arrakastatsua

1990ean Yns Mon (Anglesey Uhartea). Borough Council-ek baztertu zuen Llangoed eremuko lurretan 59 etxebizitza egiteko baimena, besteak beste, bertako etxebizitzen ezaugarriak kaltetuko zituztelako (oharra: hizkuntzari buruzko erreferentziarik ez). Arduradunak apelazioa aurkeztu zuen. Kontseiluak, Llangoed Babesteko Elkartearekin batera, frogak aurkeztu zituen herri horretako “galestartasuna” bere izaeraren ezaugarri nagusia zela ondorioztatzeko. 1991n ikuskatzaile publikoak ikerketa egin ostean honako hau jaso zuen:

Llangoed Babesteko Elkartek herria azken urteotan nola hazi den egiaztatu ahal izan du, bai eta bertan bizi direnen artean galesaren erabilera nola jaitsi den ere. Haien iritziz, 59 etxebizitzako eremu berri bat eraikitzea garapen oso azkarra litzateke Galesko komunitate indigenarentzat, baldin eta haien bizimodua zein hizkuntza osasuntsu mantentzeko itzaropenari eutsi nahi badiote. Egia da zerbitzuak maila horretako garapenera molda daitezkeela. Halere, bat egiten dut bertan bizi direnen kezekin, hain zuzen ere, bertako komunitateak garapen hain handia horren azkar hartzeko izan dezakeen gaitasunarekin.

2002an WAG (Galesko Asanblada Nazionala). Planifikazio-politika Galeseko Lurralde Politikaren (2002) barruan kokatzen da eta aholkularitza teknikoa Technical Advice Note delakoak egiten du. PPW delakoak ezarri zuen tokiko plangintza-agintari guztiek kontuan hartu behar zutela haien lan-eremuan galesa gizartearen ehunduraren parte den ala ez.

Halere ez da erabili izan.

GALESA ETA PLANGINTZA: JARRAITU BEHARREKO BIDEA 2
Tokiko agintarien (LAs), Bwrdd yr Iaith-en, Galesaren Hizkuntza Agintaritzaren (WLB), Etxe Eraikitzaileen Federazioaren (HBF) eta Galeseko Asanblada Nazionalaren (WAG) artean osatutako partzuergo batek egindako txostenaren bidez egin zioten aurre arazoari.

Politikaren barruan kokatzen da eta aholkularitza teknikoa Technical Advice Note delakoak egiten du (2002) . PPW delakoak ezarri zuen tokiko plangintza-agintari guztiek kontuan hartu behar zutela haien lan-eremuan galesa gizartearen ehunduraren parte den ala ez.

EMAITZA: HIZKUNTZAREN ERAGINA EDO INPAKTUA EBALUATZEKO MARKOA.

HIZKUNTZA-EGOERA :

HIZKUNTZA-EGOERA DELAKOAN JASO BEHARREKO INFORMAZIOAREN ADIBIDEAK

1. Enplegua/lanbideak (txikizkako salmenta barne)
2. Etxebizitzak
3. Hezkuntza
4. Azpiegiturak
5. Orokorra

Honako proposamen hauek:

- a) Tokiko beharrak baino gehiago aurreikusten dituzte.
- b) Tokiko merkatuaren eskaerarekin alderatuz gero, handiak dira.
- c) Galesa ez dakiten pertsona asko ekarriko dute.
- d) Iraganeko joeren jarraipena aurreikusi, hizkuntzaren ongizateari kalte egingo diotela jakinik, Hizkuntza Eragileen Ebaluazioa beharko dute.

ERAGILE LINGUISTIKOEN EBALUAZIOA, HIZKUNTZAREN EDO KOMUNITATEAREN GARAPENEAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN ERAGILEEN EBALUAZIOA

POPULAZIOAREN EZAUGARRIAK

1 Politikak / planak / programak / proiektuak populazioaren gehikuntza / jaitsiera ekar lezake eta honako honi eragin liezaioke: Ingeles / galesaren hiztunen arteko orekari (modu negatiboan / positiboan); edo gales hiztunen kopuruaren jaitsiera osoa edo proportzionala.

a) Zure ebaluazio orokorra DESKRIBATU.

b) Mesedez, ADIERAZ itzazu azpimarratu beharreko ebidentziak (ikerketak... Erresuma Batuko 1991ko eta 2001eko erroldetan oinarrituz).

c) Adieraz ezazu zeure ustez garapenak eragin POSITIBOA (1), NEUTROA (0) edo NEGATIBOA (-1) izango duen KOMUNITATEAn orokorrean.

d) Nola arindu daiteke edozein eragin NEGATIBO, edo POSITIBO?

2. Politikak / planak / programak / proiektuak migrazioa handitzea ekar dezake?

3. Politikak / planak / programak / proiektuak emigrazioa handitzea ekar dezake?

4. Politikak / planak / programak / proiektuak komunitatearen adin-egitura alda dezake?

5. Politikak / planak / programak / proiektuak bertakoen osasunean eragina izan dezake?

6. Politikak / planak / programak / proiektuak bertako hornikuntzan edo ekipamenduan eragina izan dezake?

7. Politikak / planak / programak / proiektuak delinkuentziaren edo bortizkeriaren mehatxua handitzea ekar dezake?

8. Politikak / planak / programak / proiektuak tokiko negozioetan eragin negatiboa izan dezake?

ARINTZEKO NEURRIAK

ARINTZEKO NEURRIEN ADIBIDEAK

Etxebizitza

- Eraikiko diren eraikinak pixkanaka baztertu.
- Etxebizitza hornidura tokiko beharretara zuzendu (106. baldintza).
- Tokiko etxebizitza-eroldan izena emana duten pertsonen esku jartzeko akordioak.
- Enplegua (txikizkako salmenta barne).
- Tokiko lanetan kontratuak.
- Tokiko gaitasunetan trebatzeko laguntzak.
- Establezimenduen barne eta kanpo-aldeetarako seinale elebidunak.
- Hizkuntza-harrerarako laguntza eta hizkuntza-eskolak.
Adib. Hizkuntza-planak, murgiltze-unitateak.
- Komunitateetan hizkuntzaren erabilera sustatzeko proiektu / ekimen kulturaleri laguntza eta dirua.
- Tokiko ikastetxe galesetan eskolarako lanpostuak sortzeko laguntza.
- Hizkuntzaren eta kulturaren sentsibilizaziorako ekimenei laguntza eta dirua.

2011/ 13: 25etik 3 toki-agintarik
besterik ez du bete Hizkuntza
Ebaluazioa.

50.000 eskaeretatik 16, %0,03

TAN20 “ONE WALES” Plaid Cymru alderdiak aurkeztua.

2013ko urrian aurkeztu zen, erroldaren emaitzek sortutako presio politikoaren ondorioz.

Emaitza

Tokiko Garapen Planen fasean hizkuntza azterketak eta ebaluazioak egin beharko dira (15 urteko plangintza)

Hizkuntzarengatik bakar-bakarrik ezin da bat ere atzera bota.

Dirua “azpiegitura zergaren” bidez ere jasoko da.

Oraindik garatu beharreko ebaluazio “tresna”.

Tokiko Garapen Planekin dagoen arazoa;

Ingalaterran egoitza duen Plangintza Ikuskaritza erakundeak Galeseko Gobernuari, eta horren ondoren tokiko agintariei, emandako populazioaren hazkunde-datuak.

Hurrengo 20 urteetan 320.000 etxe Galesen.

2011ko erroldaren arabera Galeseko populazioaren hazkundearen %90 Ingalaterratik zetorren immigrazioari zegokion.

Hortaz, bertakoen/indigenen kopurua 32.000ri hurbiltzen zaio, eta orain zer?

Balio al du ?

Ez

Zergatik ?

- Hizkuntza-plangintzatzaileek ez dituzte ulertzen plangintza-aferak, eta Plangintzako adituek ez dituzte hizkuntza-aferak ulertzen.
- Soziolinguistikaren oinarrizko ezagutzarik ez dute.
- Hizkuntzen eremuak ez du behar besteko “pisurik” plangintza-prozesuetan.
- Borondate politikorik ez
- Etxebizitza-proiektuen kopurua oso handia da Galeserako. Ingalaterran ez dute hori ulertzen.

- Eta orain, zer?

Galeseko Plangintza Lege berria.

- Oporretarako etxebizitzetan %200eko zerga jartzea galdetzen ari dira toki agintariak.

- Hizkuntzarentzako oinarri juridikoak ezarri beharko lituzkete.

- Hizkuntza-plangintzari buruzko aferetarako erakunde ofizial independentea ezarri beharko luke edo Galesaren Komisariotzari funtzio hori eman.

- Hizkuntzari “pisu” handiagoa eman beharko liokete sistemaren barruan.

- Toki agintariak bultzatu populazio zentralizatuen estimazioei aurre egiteko.

- Soziolinguistikaren eraginak sortutako kopuru txikiak justifikatzeko hizkuntza erabili.

- Tokiko eragileei lagundu tokiko garapen-planen kontrako borrokan.

Diolch yn fawr
iawn

Mila-mila esker